

Euskal Poesia

AIXERROTA BHI
Ikaslea: A. R
2004/2005

Euskal Poesia AURKIBIDEA

1. <u>SARRERA</u>	1
2. <u>AUKERATUTAKO POEMAK</u>	1
<i>Gizona eta lana</i>	1
<i>San Pedro bezperaren ondorengoak</i>	3
<i>Adiskidetasuna</i>	4
<i>Abots epelaren bila</i>	5
<i>Inork agintzen ez didalako</i>	6
4. <u>IRITZIA</u>	7
5. <u>BIBLIOGRAFIA</u>	8

o SARRERA

Euskal kulturaren poesiak betidanik indar handia izan du. Izan ere, gure herriak garai bakoitzean era desberdinean, baina aspaldidanik erabili du lirika bere sentimenduak adierazteko. Honela, antzinatek gure historiako pasarte esanguratsuenak kanten bidez biltzeko joera izan da. Hauek hasiera batean ahoz aho zabaltzen ziren baina geroago, XV. mendetik aurrera idatziz biltzen hasi ziren. Honela bada, herriak kanta ugari sortu zituen ez bakarrik eresi kantak, baita amodiozko baladak...ere. 1545. urtean Bernat Etxeparek euskarazko lehen liburua kaleratu zuen "*Linguae Vasconum Primitiae*" izenburupean. Bertan erlijiozko, bere bizitzari buruzko eta euskararen aldeko poemak aurki ditzakegu. Pixkanaka-pixkanaka garaiak aurrera egin ahala, euskal idazle gehiago azaldu ziren: Oihenart, Etxeberri Ziburukoa... beraien obretan lirika generoa erabili zutenak. Aldi berean, idazkerak zein jorratutako gaiak berritzen joan ziren. Argi dago beraz, euskal poesiak etengabeko bilakaera izan duela XV. mendetik gaur egun arte. Normala denez, lehengo poesiak ez du ia zerikusirik egunekoarekin erabilitako: moldeak, gaiak, lexikoa, baliabideak... guztiz desberdinak baitira. Poetek gainontzeko kulturetan gertatu den antzera, apurka-apurka berrikuntzak egin dituzte, idazle askoren helburuetako bat estilo berri eta txundigarria topatzea izan baita. Gainera, atzerritik etorritako garaiko modek eragin handia izan dute hemengo poesiarengan. Halere, ez da ahaztu behar ahozko lirikak indarrean jarraitu duela. Horren erakusgarri da hain zuzen ere, bertsolaritza, honek urtez urte bere eragina mantendu baitu.

Honenbestez, esan dezakegu lirikak garrantzi handia izan duela euskal literaturaren historian. Baina, arestian esan dugun bezala garaiak aldatuz doaz eta orain, XXI. mendean, irakurle gehienek nahiago dute nobelak irakurtzea poesia baino, ziurrenik ulerkorragoak eta dibertigarriagoak suertatzen zaizkielako. Nik behintzat aitortu beharra dut gaurdaino ez dudala poesia askorik irakurri, eta are gutxiago poesia obra bati buruzko azterketa egin, beti agindu baitzikidate eleberriei buruzko azterketak eta noski ez dudalako nahi izan. Horregatik, eleberriei buruzko testu azterketak egiteaz asperturik nengoela, poesia aztertzeke aukera azaldu eta oraingoan hura lantzea erabaki nuen. Honela, hurrengo orrialdeetan kutsu berezia duten hainbat poesia bildu dira eta horiei buruzko iritzia jaso, hortaz, testu hauen azterketari ekingo diogu hemendik aurrera.

ezinezkoa suertatzen zaigu lana alde batera uztea eta benetan gogoko duguna egitea. Egungo gizartean bizi ahal izateko dirua izatea nahitaezko baldintza baita, eta hau lortzeko lan egin behar. Geroz eta diru gehiago izanda gure nahi materialak asetzeko erraztasun gehiago du, baina ez afektiboak asetzeko. Dirua lortzeko lanean denbora gehiago eman behar da eta. Ondorioz gizakion aisialdirako denbora murrizten delarik. Arazo honen sortzailea egun indarrean dagoen sistemaren antolaketarena da, bertan diruak bakarrik du garrantzia. Geroz eta ardura handiagoa eskaintzen diegu gauza materialei eta ez ordea behar afektiboek. Honek indarrean jarraitzen duen bitartean, gizakiok lana eta aisiaren arteko proportzio egokia topatu beharko dugu ez gaitezen lanean, jaten eta lotan soilik aritzen diren makinak bihurtu.

► San Pedro bezperaren ondorengoak (Urretabizkaia)

Arantxa Urretabizkaia Donostian jaio zen 1947. urtean eta batez ere idatzi dituen narraziozko obregatik da ezaguna. Halere, poesiazko zenbait lan egin dute hala nola aukeratu dugun poema, *San Pedro bezperaren ondorengoak*, izenburu bereko poema-bildumaren parte da.

Duela urte asko (hamar urte ez al dira urte asko) San Pedro bezpera batean, gauerdian, denbora gelditu egin zen. Eta hutsune hartan, zulo beltz busti hotz bat gertatu zen. Eta amets lodi eta ahaztu hartatik iratzartzean zulo hartan murgildurik, arroxina upel batean erdi itorik, gorputzaren milimetro bakoitza erne,	beldurtia, denborarik gabeko itxarote haren erloju orratz gabea. Duela urte asko, hamaika ia, San Pedro bezpera batean, infernuko deabru guztiek, bultzaka, kolpeka, geratutako denbora martxan jarri zuten. Eta ene historia bitan zatitzen da harrez gero San Pedro egun haren lehenagokoa eta ondokoa. Gau hartan dago hartzaroaren muga, hesia, zorionaren azken esperantza, gau hartan hil zen ene	inozentzia, San Pedro bezpera bateko gau madarikatu hartan. Duela urte guti, edo ez hain guti, lau ia, San Pedro bezpera batean, gaueko hamarrak bost gutitan espero izateko esperantza hil zeutaten. Arlote, alfer, sadiko. mozkor, infernuko deabru guztien begiratu nazkagarri eta beroaren aurrean, azpian, kausa loriosik gabeko Jeanne d'Arc alpretaduna, kanoirik gabeko Agustina Aragoiko,	lumarik gabeko Simone de Beauvoir analfabetoa, ezpatarik gabeko aingeru mendekatzailea, betiko katea lotu zeutaten bihotzean, San Pedro bezpera batean, duela hamar edo lau urte. Duela ia lau urte San Pedro biharamunean, uztailaren lehenengo egunean (Jesu Kristoren odol guztiz preziatuaren eguna) zin egin nuen inoiz inon inork ez zuela ene denbora geratzeko boterea erdietsiko.
---	---	--	---

Istorio benetan hunkigarria kontatzen digu autoreak poema honetan. Idazleak, bere esperientzia pertsonala bailitzan egun oraindik hainbat eta hainbat emakumek bizi duten bizipenak kontatzen dira bertsoen bidez. Haur izatetik emakume izatera ematen den bidea azaltzen da. Baina kasu honetan zoritxarrez ez da denboraren poderioz emandako aldaketa baizik eta ekintza baten ondoriozkoa, bortxaketa batena edo gaizki hartutako erabaki baten ondorioa da. Idazleak argi bereizten ditu bi etapa bere bizitzan zehar, egun horren aurrekoa eta ondorengoa. Bere gaztaroa, aurreko zatian agertzen da non, oraindik haurra zela bizitza hobeago bat izateko esperantza gordetzen zuen, arazo guztiak konponbidea zutela uste zuen garai hura. Alaitasunaren garaia zela ematen du, kezkatzeko ezer ez zuen garaia baina bat-batean, zerbaitek hura apurtzen du, bere bizitza betiko bi zatitan banatzen du.

Handik aurrera, beldurra sentitzen du bere barnean eta bizitzaren benetako esanahiaz jabetu dela uste du. Indarrik gabe aurkitzen da, aurrera egiteko behar zuen tresna kendu baliote bezala. Hau aditzera emateko, autoreak historian eragin handia izan duten emakume batzuen adibideak ematen ditu:

*Jeanne d'Arc alpretaduna,
kanoirik gabeko
Agustina Aragoiko,
lumarik gabeko
Simone de Beauvoir analfabetoa,*

Emakume hauek era baten edo bestera, mundua aldatzen saiatu ziren. Horregatik dio idazleak bada pertsona famatu horiek zuten bertute handienetako bat kendu baliote bezala sentitzen dela, bizitza honetako zenbait gauzei aurre egiteko ezina du, inpotentzia. Baina denbora aurrera joan ahala, indar hartzen doa pixkanaka-pixkanaka, eta bere buruari promesa bat egiten dio, sekula ez diola utziko ezeri bere bizitza geldiarazten.

Jende askok esaten du, heldutasunera iristeko bizitzak jarritako "proba" antzeko bat igarotzea beharrezkoa dela. Nik oraingoz ez dut uste inolako oztopo handirik igaro behar izan dudarik, hori bai oztopo txiki anitz topatu ditut. Halere, autorearekin guztiz bat nator eta ez genuke inoiz utzi behar beste pertsona batek, gure bizitza etetea eta gure ilusio guztiak danbateko batez zapuztea.

► Adiskidetasuna (Juan Luis Zabala)

1963. urtean Azkoitian jaiotako idazlea dugu Juan Luis Zabala. Idazle honek, narrazioa eta nobela generoetan aritu da normalean, halere, poema liburu bat argitaratu zuen 2000.urtean *Hautsia natza* izenburupean.

Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.
Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.

Zuen beharra dudala
nik aitortzen dut.
Gorrotatzen zaituztedala
ezin ukatu dut.

Zuekin nagoenean
bakarrik egon nahi dut.
Bakarrik nagoenean
zuekin egon nahi dut.

Gorrotatzen zaituztedala
nik aitortzen dut.
Zuen beharra dudala
ezin ukatu dut.

Nire iritziz egia da poema honetan kontatzen dena, nik ere horrelako sentimendua maiz izaten dut eta. Lagunekin nagoenean oso ondo pasatzen dut baina beraiekin denbora luzea egon eta gero bat-batean bakarrik egoteko premia sentitzen dut, nire gauzetan pentsatzeko...edo besterik gabe egunkaria irakurtzeko. Baina luzaroan bakarrik nagoenean eta inorekin kontakturik ez dudanean, berriro ere lagunekin edo familiarekin egoteko beharra sumatzen. Are gehiago nabarmentzen dut beraiekin eztabaida bat izan eta gero.

Egia esan, ez nuen uste gainontzekoei berdina gertatzen zitzaienik eta horregatik, poema hau lehenengoz entzun nuenean (poema hau talde batek moldatu du abesti gisa) harritu eta aldi berean guztiz identifikatu nintzen idazlearekin.

Poema honi esker, ulertu dut gizakiak berezko esparru bat izateko beharra duela bere sentimenduak, burutazioak, hausnarketak...egiteko. Adiskideekin, klase kideekin eta familiarekin ematen dugu ia egun osoa, gure bizipenak beste batzuekin konpartituz. Halere, askotan askeak izan nahi dugu, inolako loturaren beharrik gabe baina ezinezkoa zaigu, kideak behar ditugu. Gainera, askotan ez gara ohartzen euren garrantziaz faltan sumatzen ditugun arte, orduan ohartzen gara besteen laguntza ezinbestekoa zaigula edozein arazo txiki zein handiri aurre egiteko.

Beraz, pertsona bakoitzak bere esparrua bilatu behar du, bakarrik egoteko eta bizitzaz hausnartzeko, bakardade asti horietaz gozatzeko beraietan nahi duena eginez: bizikletan ibili, pasioan joan, idatzi, margotu, telebista ikusi, musika entzun... Baina inoiz ere ez gure senide eta lagunetaz ahaztuz, uneoro beraien beharra suerta dakigukeelako ondo pasatzeko eta beste batzuetan laguntzeko.

► Ahots epelaren bila (Paddy Rekalde)

1964. urtean jaiotako idazle deustuarra da, eta bere bizitzan zehar nobela, narrazioa eta poesia landu ditu. 1999 eta 2004 urteen bitartean argitaratu ditu bere obrak, beraz lan nahiko berriak dira. Poesigintzan *Sex abaroa* (2000) eta *Bilbo dub kronikak* (2004) poema liburuak plazaratu ditu.

Kale zahar horretako lokutorioak
itxura dotorerik ez badauka ere,
ortzadarra ematen du ordu batzuetan,
hara sartzen direnen larruazalen koloreengatik
hara doazenen jantzien koloreengatik.
Eta pentsatzen dut
are koloretsuagoak direla
telefonoaren bestaldean dauden parajeak,
eta gorriagoak ezpainak, eta urdinagoak zeruak;
eta minutu batzuez, behintzat,
telefonoz bestaldeko ahotsak
epeldu egingo die bihotz hotzituak.

Aurreko hirugarren pisuko gizonak
mesprexuz begiratzen dio leihotik
kale zahar horretako lokutoriotik
sartu eta irten ohi den giza ortzadarrari,
baina ez daki,
edo ez du gogoratu nahi,
bere aitak
antzeko beste lokutorio batera
jotzen zuela hilean behin edo birritan
sorterriko parajeen berri izateko,
baina, batez ere,
giza ortzadarrak egiten duen bezala,
bihotz hotzituak laztanduko zion ahots epelaren bila

Geroz eta atzerritar gehiago bizi da gure artean; arraza, kultura...desberdineko jende ugari ikus dezakegu egun gure kaleetatik. Gehienak, bizimodu hobea baten bila datoz beraien jatorrizko lurraldeetan miseria larrian bizi baitira baina askotan, hemen topatzen dutena ez da askoz hobea. Hau gutxi izango balitz, beraien senideengandik aldentzeko beharrean aurkitzen dira beraiekin duten harremana telefonozko elkarrizketetara mugatuz. Egungo gizarteak duen arazo larrienetako bat da fenomeno hau, izan ere, batzuek ez dituzte begi onez ikusten etorkinak. Egia da, etorkinak agertzen hasi zirenetik arazo ugari sortu direla. Alde batetik zenbait etorkin oso egoera tamalgarran bizi dira eta hauetako gutxi batzuek, beraien egoera hobetzeko esperantzaz mafientzako lan egitea edota zenbait delitu burutzea erabakitzen dute. Beste aldetik, hemengo biztanle askok ez du onartzen beraien etorrera arrazoi askorengatik. Baina azken hauen gehiengoa ez da konturatzen beraiek eta bere familia urte batzuk lehenago baita etorkinak izan zirela.

Nire iritziz arazo honek ez du konponbiderik izango estatuen arteko elkarlana eta laguntza sustatzen ez den bitartean. Argi eta garbi baitago etorkinak ez datozela ona kapritxo hutsagatik baizik eta beraien bizimodua hobetzeko esperantzaz. Horregatik

konponbidea ez da beraien sarrera ukatzea baizik eta beraien herrialdeetako egoera hobetzea, beraien jaioterrian bizi ahal izateko. Bestalde, etorkinek ahalegin handiago bat egin beharko lukete gure kultura, historia, bizimodu... ezagutzeko era honetan gizartean hobeto integratu ahal izateko.

Bien bitartean bizitzeko inolako arazorik ez dugunok, gure errespetua azaldu beharko genieke, are gehiago, egungo euskal gizarteko parte handi batek etorkin jatorria duenean. Batzuk duela hamarkada gutxi etorri baitziren hona eta beste batzuk berriz, Ameriketara joan behar izan zutelako diru bila.

Horregatik dira lokutorioak hain leku estimatu batzuentzat eta mespretxagarri beste batzuentzako. Balia gaitzen bizitzak eman digun aukera honetaz beste kultura batzuekin harremanetan jarriz gehiago ikasteko eta lagun berriak egiteko.

► Inork agintzen ez didalako (Joseba Sarrionandia)

Joseba Sarrionandia Iurretan jaio zen 1958. urtean. Euskal filologian lizentziatu zen eta hainbat unibertsitatetan aritu zen irakasle lanetan. *Gaztetatik* interesatu zen literaturaz eta zinemaz, *Pott* bandaren sortzaileetako bat izan zen: Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga... horiekin batera. 1980an ETako kidea izatea leporatuta atxilotu egin zuten. Urte horretan bertan hainbat literatur sari irabazi zituen besteak beste Izuen gordeleketan barrena poema bildumarekin. 1985eko uztailaren 7an, espetxetik ihes egitea lortu zuen bafle baten ezkutaturik. Handik aurrera klandestinitatean bizi da. Autore honek, prosa zein poesia uztartu ditu arrakasta handiaz. Bere poesiaren garapena *Marinel zaharrak* (1987) eta *Gartzelako poemak* (1992) liburuetan eman zen, bidaiarako nostalgia eta iraganaren malenkonia eguneroko bizimodu gogorarekin tartekatuz, hasierako poemagintzan zuen kultismorako joera gaituta. *Hnuy illa nyha mjah yahoo* (1995) libururekin obra poetikoaren bilduma eta ziklo oso baten gailurra topatu zuen, euskal lirika barnean obra garrantzitsu bat izanik.

Inork agintzen ez didalako
dut maite
maite dudana.
Inork agintzen ez didalako
ditut basamortua eta izarlokak maite.
Itsasontzi noragabeak, gauerdiko biolinak
ilunabarren margoa, xorino hezurtoen higidura,
sagarrondoetan eskegiriko bihotz horik,
tristura handiegia zaien neskatxak
eta zure irria, zure irria ere
inork agintzen ez didalako
dut maite.

Askatasunaren aldeko poema baten aurrean gaude. Poetak bidaltzen duen mezua, eta honen indarra izugarritzakoak dira. Izan ere, edozein arrazoiren gaienetik sentimendua jartzen du autoreak. Hau da, sentimenei garrantzi handiagoa ematen die arrazoiei baino.

Norbaitek gustuko dugunaz galdetzean eta horren arrazoiak jakin nahi dituztenean ez dugu zertan erantzun, askotan gauzak ez dute arrazoirik behar. Are larriagoa da norbaitek

zerbait maitatzeko agintzen digunean gogoz kontra, ezinezkoa da pertsona batentzat nahi ez duen zerbait maitatzea. Nire iritziz sentimenduak norbanakoarenak dira eta inork ezin du ezer inposatu, ezin da inolako sentimenik beste bati ezarri. Sentimenek ez dute arrazoirik, besterik gabe horrelakoa dira eta diren bezalakoak onartu behar ditugu, nahiz eta batzuetan ilogikoak izan, berdin du, maite duguna maite dugu eta ezerk ezingo du hori aldatu gu izan ezik.

Sarrionandiak poema honen bidez hori aditzera eman nahi du nire ikuspuntutik, sentimenduen askatasuna. Bere mezuari indar handiagoa eman nahiez behin baino gehiagotan agertzen zaigu honakoa: "inork agintzen ez didalako dut maite." Argi uzten du idazleak bada, berak zerbait maite duela agian emakume bat, askatasuna, herria... edo dena delakoa, eta norbaitek oker jotzen ari dela esaten ari zaiola, bere sentimendu horri buruzko arrazoiak eskatuz. Baina berak ezin du arrazoirik eman, bere sentimendua horrelakoa da, eta ez du aldatuko edozeren aurrean ezta arrazoi boteretsuenen aurrean, sentimenduek ez dutelako arrazoiaren beharrik, gustuko duguna gustuko edukiko baitugu geure bihotzak horrela agintzen digun bitartean.

○ IRITZIA

Poesiari buruzko lan hau, aurrekoak baino askoz gusturago egin dut. Alde batetik, betiko nobelak alde batera utzi ditudalako eta niretzako genero berri baten murgildu egin naizelako. Honela, narraziozko liburuetatik aparte, poesiazko beste mundu izugarri handi bat aurkitu dut, eta egia esan, prosa baino askoz zailagoa iruditu zait. Izan ere, poemak ulertzeko ahalegin berezia egin behar da, beraien metaforen, irudien... esanahiez ondo jabetu ahal izateko. Baina ezaugarri horiek egiten dute askoz ere adierazkor eta hunkigarriagoa poesia, badirudi batzuetan poesia horrek gure sentimenduak azal ditzakeela, harrigarria da benetan arteak sentimenduak transmititzeko duen gaitasuna, izan ere, musikak, irudiek, letrek...hori egiten baitute eta poesiak ere.

Aipatzekoa da baita, lan honetan, nahi adina gai jorratzeko aukera izan dugula, poesiak, bizitzak eskaintzen dizkigun gauza ia guztietaz diharduelako eta horrek lana burutzen lagundu nau, nahi izan dudana gaia jorratu ahal izan dudalako.

Agian ez diogu eguneroko bizitzan arreta handiegirik eskaintzen poesiari, badirudi azken urte hauetan baztertuta geratu dela nahiz eta autoreek poesia liburuak kaleratu. Jende gehienak nobelak bakarrik irakurtzen baititu, nire iritziz ulertzeko errazagoak eta azkarragoak direlako.

Beraz, poesiari kasu gehiago egin beharko genioke eleberriak alde batera utzi gabe, eta gure nahiaren arabera bata ala bestea aukeratu, literatur mundu nobeletan amaitzen ez dela gogoratuz.

○ BIBLIOGRAFIA

- *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* , Askoren artean. Klaudio Harluxet Fundazioa.
- *Euskal Literaturaren Antologia*, Xabier Mendiguren eta Koldo Izagirre. Elkarlanean.
- *www.armiarma.com* , Askoren artean. Susa argitaletxea.
- *www.basquepoetry.net* , Askoren artean. Susa argitaletxea.